ANGELUKO IKASLEAK

OSOGUNEKO ERAKASKERA

2001-2002 IKAS - URTEA

# HOGOI TA BATGARREN ERAKASPENA



## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA

1- Zertako kexu da idazlaria?
2- Nola deitzen da Aldudako auzapeza.
3- Zer nahi zuten Urepeldarrek?

## (II) UHALDEA 12

Erregebidearen errotik antolatzen ez omen dira oraino hasiko bizpahiru hilabetez; behar dira holetan lehenik planak egin, gero puskak izarian erosi eta lekuen gainerat ekarri. Eta badakizue gure gizonek hartzen dutela beti hoitako asti...

Handi zitaken politika madarikatuak ez balu bere muturra agertu uhaldearen ondotik. Ikusi dugu hartako doi bekuruste bai eta ximikta; ukan ere ba uste ez ginuen uztar bat. Hala nola, iragan astean, frantses kazeta batek ekarri baitauku zati bat dena laudorio, *Ernautene* Urepeleko meraren alderat (4), deitzen zuela jaun hori, *M. Ernautène maire des Aldudes.*

Irri egingarri litake, ez balitz hor Aldudarentzat trufa bat, eta trufaren gibelean gordea... gezurra. Lau egun uhaldearen ondotik, Urepeleko merak sinarazi zuen, bere herrian, errientari izkiriarazirik, gobernamenduari egin nahi zuen galde hau: gauzak utz zitzala Espainiatik Urepelen sartzera dretxorik gabe, erregebidea antolatu artio. Sinatu zuten holetan hiruetanhogoiek. *Petizionea* gero igorri zuen jaun merak suprefetari, hunek hel zezan prefetari, eta azkenean prefetak ministroen buruzagiari.

Docteur Etxegarre

### 34. IZAN - Conditionnel Présent

| | |
|---|---|
| Ni izan ninteke | = je serais |
| Hi -"- hinteke | = tu serais |
| Zu -"- zintezke | = vous seriez |
| Hura -"- liteke | = il serait |
| Gu -"- gintezke | = nous serions |
| Zuek -"- zintezkete | = vous seriez |
| Hek -"- litezke | = ils seraient |

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Badakizue — 32. Handi zitaken
33. Ekarri baitauku — 34. Irri egingarri litake
35. Ez balitz — 36. Utz zitzala, hel zezan

### 31. JAKIN Indicatif Présent

| C.D.S | C.D.P |
|---|---|
| Nik dakit = je le sais | N. dazkit = je les sais (dakizkit) ou |
| Hik dakik/n = tu le sais | Hi dazkik/n = tu les sais (dakizkik/n) |
| Zuk dakizu = vs le savez | Z. dazkizu = vs les savez (dakizkizu) |
| Harek daki = il le sait | H. dazki = il les sait (dakizki) |
| Guk dakigu = ns le savons | G. dazkigu = ns les savons (dakizkigu) |
| Zuek dakizue = vs le savez | Z. dazkizue = vs les savez (dakizkizue) |
| Heiek dakite = ils le savent | H. dazkite = ils les savent (dakizkite) |

### 32. Potentiel Imparfait / Présent

| Imparfait | Présent |
|---|---|
| Ni izan ninteken = je pouvais être | N. izan naiteke = je peux être |
| Hi -"- hinteken = tu pouvais être | H. " haiteke = |
| Zu -"- zintezken = vs pouviez être | Z. " zaitezke = |
| Hura -"- zitezken = il pouvait être | H. " daiteke = |
| Gu -"- gintezken = ns pouvions être | G. " gaitezke |
| Zuek -"- zintezketen = vs pouviez être | Z. " zaitezkete = |
| Hek -"- zitezken = ils pouvaient être | H. daitezke = etc. |

### 33. UKAN. Conj. à dble cplt - Indicatif Présent

C.D. Singulier et C.I. Pluriel

Zuk daukuzu = vous nous l'avez
Harek dauku = il nous l'a
Zuek daukuzue = vous nous l'avez
Heiek daukute = ils nous l'ont